



# ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KLARINETEA

2024-02-12

## Nori zuzenduak?

Graduko **Klarinete interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko otsailaren 5ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

## Jardunaldiaren helburua

**Klarinete interpretazio** Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko erreperitorio egokia .

## Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia  
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián  
Telefonoa: 00 34 943.023.750  
E-maila: [info@musikene.eus](mailto:info@musikene.eus)  
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

## Jardunaldiaren egitura

**ESTELLÉS, José Luis**

**Sergio Barranco** (Orkestra erreperitorioa) eta **Amaia Zipitria** (Erreperitorioa pianistarekin) espezialitateko irakasleen parte-hartzearekin

**9:30** Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

**10:30-14:00** Parte hartzaile aktiboei eskolak José Luis Estellés eta Amaia Zipitria irakaslen eskutik

**14:00** Bazkaria

**16:00-19:00** Parte hartzaile aktiboei eskolak José Luis Estellés eta Amaia Zipitria irakaslen eskutik (Jarraipena)

**15:00-19:00** Orkestra Erreperitorio eskolak (ikasle aktiboen parte-hartzearekin) Sergio Barranco irakaslearen eskutik (ordu beteko 4 talde)

**19:00-20:00** Musikeneko Klarinete / Klarinete Ensemble ikasleen emanaldia

**Klarinete** jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasetzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:  
[dpto.vientopercusion@musikene.net](mailto:dpto.vientopercusion@musikene.net)